



# Mendaroko UDAL BULETINA

2026ko apirila  
(más abajo en castellano)



## **Aurkibidea**

### **2026ko aurrekontuek inbertsio estrategikoetan jartzen dute azpimarra.....3-4**

*Mendaroren etorkizuneko norabidea markatzen du, udalerrri modernoagoa, jasangarriagoa eta sozialki kohesionatuagoa eraikitzearen alde eginez inbertsio estrategikoen bidez*

### **Hezkuntza berritzailea Mendaron: eskola baratzea eta filosofia umeentzat Hezkuntza Foroan.....5-6**

*Ekimen hauen bidez, Mendarok hezkuntza ikuspegi zabalago baten aldeko apustua egiten du*

### **Azpilgoetako autobus geltokiaren segurtasuna hobetzeko urrats erabakigarria.....7-8**

*Lan hauek gauzatuta, Azpilgoetako autobus geltokia egungo arrisku egoeratik urrundu eta herritarrek behar duten segurtasun mailara hurbilduko da*

### **Mendaroko dendari elkarteak sortu da herriko merkataritza indartzeko.....9-10**

*Elkartearen sorrera Mendaroko herri-bizitzarako estrategikoa den sektore bati bultzada emateko helburuz egin da*

### **Santa Anako trenbide- pasaguneari soinu eta argi bidezko sistema automatikoa ezarriko zaio.....11**

*ETSren aurreikuspenak beteko balira, irailerako lanak amaituta egongo lirateke*

### **Udalak Mendarora bizitzera datozen herritarrentzako Harrera Protokoloa osatu du.....12-13**

*Protokoloaren helburua etorri berrien integrazioa erraztea eta aniztasuna balioan jarritz komunitatea kohesionatzea da*

### **Altzola eta Mendaro arteko bidegorri zatia diseinatzen ari da Gipuzkoako Foru Aldundia.....14**

*Gipuzkoako Foru Aldundia Altzola eta Mendaro arteko 1,7 kilometroko bidegorri zatia diseinatzen ari da, eskualdeko mugikortasun jasangarria eta oinezko zein txirrindularien segurtasuna hobetzeko helburuarekin*

### **Elkarlanean ibilbide osasungarrien sarea diseinatzen.....15-16**

*Herritarren eta herriko eragileen parte-hartzea bilatuz ari da prozesua garatzen urtea amaitu aurretik oinezko ibilbide sarea martxan egon dadin*



## **2026ko aurrekontuek inbertsio estrategikoetan jartzen dute azpimarra**

*Mendaroren etorkizuneko norabidea markatzen du, udalerrri modernoagoa, jasangarriagoa eta sozialki kohesionatuagoa eraikitzearen alde eginez inbertsio estrategikoen bidez*

Mendaroko Udalak 2026ko aurrekontua onartu du, 4,48 milioi euro ingurukoa, arreta berezia jarriz inbertsio estrategikoetan, helburutzat hartuta udalerrriaren azpiegiturak eta zerbitzu publikoak hobetzea eta energia-eredu jasangarriago baterantz aurrera egitea.

Aurrekontuaren ardatz nagusietako bat inbertsioen kapitulua da, 1,3 milioi eurotik gorakoa, eta herritarren eguneroko bizitzan eragin zuzena izango duten hainbat proiektu esanguratsu biltzen dituena.

### **Erretiratuen etxearen eta tabernaren erreforma**

Inbertsio nagusietako bat erretiratuen etxearen eta tabernaren eraberritze integrala izango da, 800.000 euro inguruko aurrekontuarekin. Proiektu honen bidez espazioaren erosotasuna, irisgarritasuna eta funtzionaltasuna hobetu nahi dira, horrela udalerriko gizarte-topagune garrantzitsu bat indartuz.

Udalaren helburua da eraikinari erabilera eguneratua ematea, zerbitzua modernizatuz eta herri-bizitzarako erreferentziazko espazio bihurtuz.

### **Argiteria publikoaren berritzea: energia-eraginkortasunerantz**

Beste inbertsio nabarmen bat argiteria publikoaren berritzea da, LED teknologiaraz igaroz. 500.000 eurotik gorako inbertsioarekin, Udalak energia-kontsumoa murriztu, kostuak jaitsi eta udalerriko argiztapenaren kalitatea hobetu nahi du.

Neurri honek Mendaro trantsizio energetikoaren bidean kokatzen du, ingurumenarekiko jasangarriagoa den eredu bat bultzatuz eta karbono-aztarna murriztuz.

## **Udal azpiegituren eta zerbitzuen hobekuntza**

Aurrekontuak udalerriko azpiegitura eta zerbitzuen hobekuntza orokorrerako partida bat ere jasotzen du. Atal honetan udal espazioen mantentze-lanak, irisgarritasunaren hobekuntzak eta espazio publikoen egokitzapena aurreikusten dira.

Helburua da herritarren eguneroko erabilerarako espazio seguruagoak, irisgarriagoak eta funtzionalagoak sortzea.

## **Udalaren ikuspegia: etorkizuneko udalerrri-eredurantz**

Enetz Ezenarro alkatearen arabera, 2026ko aurrekontua “errealismoz baina etorkizun-ikuspegiz” egin dago, eta inbertsioek Mendaroren behar nagusiei erantzuten dietela azpimarratu du.

Era berean, alkateak nabarmendu du ildo estrategiko hauek herritarren ongizatea hobetzeko aukera emango dutela, eta adierazi du horrelako hobekuntzak “benetan merezi ditu herritarrak”, udalerrriaren eguneroko bizi-kalitatean eragin zuzena dutelako.

“Gure helburua ez da soilik eguneroko zerbitzuak mantentzea, baizik eta udalerrria modernizatzea, gizarte-kohesioa indartzea eta trantsizio energetiko eta sozialari erantzutea”, adierazi du.



## **Hezkuntza berritzailea Mendaron: eskola baratzea eta filosofia umeentzat Hezkuntza Foroan**

*Ekimen hauen bidez, Mendarok hezkuntza ikuspegi zabalago baten aldeko apustua egiten du*

Hezkuntza komunitatea indartzea eta ikaskuntza berritzaileak sustatzea helburu duten ekimenen barruan, Mendaroko Udala-k Hezkuntza Foroa jarri du martxan, herriko eskolarekin, guraso elkartearekin eta herriko beste eragile batzuekin elkarlanean. Foro horren baitan, bi ardatz nagusi aukeratu dira ikasturte honetan martxan jartzeko: eskola baratzea eta filosofia umeentzat.


Eskola baratzea egitasmoak natura eta hezkuntza uztartzen ditu, hurrek esperientzia zuzenez ikas dezaten. Baratzean lan eginez, ikasleek landareen hazkundea, ingurumenarekiko errespetua eta elikadura osasuntsuaren garrantzia ezagutzen dituzte. Aldi berean, talde-lana, ardura eta autonomia bezalako balioak lantzeko aukera eskaintzen du, ikasgelatik kanpoko ikaskuntza esperientziala indartuz.

Bestalde, filosofia umeentzat programak pentsamendu kritikoa eta elkarrizketa sustatzen ditu. Saio hauetan hurrek galderak egiten ikasten dute, euren iritziak adierazten eta besteena entzuten. Ez da erantzun zuzenak bilatzea helburu nagusia, baizik eta pentsatzeko gaitasuna garatzea eta arrazoibideak eraikitzea. Horrela, hurrek autonomia intelektuala eta komunikazio gaitasunak lantzen dituzte.

Hezkuntza Foroa, berez, ez da ekimen isolatua, baizik eta OinHerri herri hezitzailean sareak bideratutako udala, eskola, guraso elkarte eta herriko beste eragile batzuen arteko elkarlanerako espazio parte-hartzailea. Bertan, hezkuntza eredu inklusiboago eta osatuago baten aldeko proposamenak lantzen dira, herriko hezkuntza komunitatea indartzeko asmoz.

Ekimen hauen bidez, Mendarok hezkuntza ikuspegi zabalago baten aldeko apustua egiten du: ezagutza akademikoaz harago, haurren garapen emozionala, soziala eta kritikoa ere kontuan hartzen dituena. Horrek guztiak herriaren etorkizunari begira oinarri sendoagoa eraikitzen laguntzen du.

Badira bi urte Mendaro OinHerri herri hezitzaileen sarean integratu zela. Harrezkero ekimen desberdinak burutu dira Mendaro OinHerriren laguntzarekin: Kaleak Denonak espazio publikoen berrantolaketan ume eta gaztetxoek partehartzea txertatzea izan zen lehenbizikoa eta Mendaroko Hezkuntza Foroa martxan jartzea izan da bigarrena.



## **Azpilgoetako autobus geltokiaren segurtasuna hobetzeko urrats erabakigarria**

*Lan hauek gauzatuta, Azpilgoetako autobus geltokia egungo arrisku egoeratik urrundu eta herritarrek behar duten segurtasun mailara hurbilduko da*

Mendaroko Udalak urteak daramatza Azpilgoeta auzoko autobus geltokiaren egoeraz kezkatuta, eta behin eta berriro azpimarratu izan du bertako erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko premia. Gaur egun, geltokiak dituen gabeziek arrisku egoerak sortzen dituzte, batez ere oinezkoentzat, autobusa errepidean bertan gelditzen delako eta itxaroteko espazio egokirik ez dagoelako.

Testuinguru honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak geltokia egokitzeko lanak egingo dituela baieztatu da, udalaren aspaldiko eskaerari erantzunez. Proiektuaren helburua argia da: erabiltzaileen segurtasuna hobetzea eta geltokiaren irisgarritasuna bermatzea.

Aurreikusitako lanen artean daude trafikoa moteltzeko neurriak ezartzea, oinezkoentzako pasabideak egokitzea eta geralekuaren egitura bera hobetzea, erabiltzaileek baldintza seguruagoetan itxaron ahal izan dezaten.

Mendaroko alkateak, Enez Ezenarrok, azpimarratu duenez, “udalaren lehentasun nagusietako bat herritarren segurtasuna da, eta kasu honetan are gehiago, egunerokoan garraio publikoa erabiltzen duten pertsonena. Urteak daramatzagu egoera hau salatzen eta konponbide bat eskatzen, eta pozik gaude azkenean pauso erabakigarri hau emango delako”. Halaber, alkateak nabarmendu du elkarlan instituzionalaren garrantzia: “Udaletik behin eta berriro eskatu dugu esku-hartzea, eta Aldundiarekin izandako lankidetzari esker lortu dugu proiektu hau aurrera ateratzea. Honek erakusten du administrazioen arteko elkarlana funtsezkoa dela herritarren ongizatea bermatzeko”.

Lan hauek gauzatuta, Azpilgoetako autobus geltokia egungo arrisku egoeratik urrundu eta herritarrek behar duten segurtasun mailara hurbilduko da. Mendaroko Udalak, bere

aldetik, lanean jarraituko du herriko azpiegiturak hobetzen eta herritarren bizi kalitatea bermatzen.



## **Mendaroko dendari elkarteak sortu da herriko merkataritza indartzeko**

*Elkartearen sorrera Mendaroko herri-bizitzarako estrategikoa den sektore bati bultzada emateko helburuz egin da*

Mendaron dendari elkarte berria eratu zen 2025 urte amaieran, herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu txikien arteko lankidetzak eta dinamizazioa sustatzeko helburuarekin. Ekimenak Udalaren babesa jaso du eta sektoreko hainbat eragileren parte-hartzearekin gauzatu da.

Elkartearen sorrera Mendaroko herri-bizitzarako estrategikoa den sektore bati bultzada emateko helburuz egin da. Herriko merkataritza ez da soilik zerbitzu ekonomiko bat; eguneroko harremanak, gertutasuna eta herriaren kohesio soziala bermatzen dituen egitura ere bada.

Herriko dendek eta ostalaritzak funtzio sozial garrantzitsua betetzen dute: adineko pertsonen gertuko arreta eskaintzen diete, herriko kaleei bizitasuna ematen diete eta eguneroko bizitza komunitarioa sostengatzen dute. Horregatik, sektore honen ahultzeak edo desagertzea ondorio zuzena izango luke herriaren eguneroko dinamikan.

Merkataritza txikirik gabeko Mendaroko batek arrisku nabarmenak izango lituzke: kaleetako bizitasuna murriztea, herritarren arteko harremanak ahultzea, zerbitzuen eskuragarritasuna zailteza eta, oro har, herri-identitatearen galera progresiboa. Gainera, kontsumoaren kanporatzeak (beste herrietara joatea erostera) tokiko ekonomia ahulduko luke eta enplegu-aukeretan ere eragina izango luke.

Testuinguru horretan, dendari elkartearen sorrera pauso garrantzitsua da herriko merkataritza sarea indartzeko eta etorkizun iraunkorra bermatzeko.

Mendaroko Udalak positiboki baloratu du egitasmoa. Enetz

Ezenarro alkatearen hitzetan, “herriko merkataritza txikia zaintzea eta indartzea funtsezkoa da Mendaroren etorkizunerako. Merkataritzarik gabeko herri batek ez luke gaur egun ezagutzen dugun bizitasun sozial eta komunitarioa izango”.

Halaber, alkateak azpimarratu du Udalaren konpromisoa: “Udaletik prest gaude elkarlanean jarraitzeko, herriko merkataritza sareak bizirik jarrai dezan eta herritarrei gertuko eta kalitatezko zerbitzua eskaintzen jarraitzeko”.

Elkarte berriak dagoeneko lehen lan-ildoak zehaztu ditu, besteak beste, herriko dinamizazio ekimenak, kanpaina komertzial bateratuak eta sektorearen beharrak identifikatzeko bilera jarraituak. Parte-hartzaileek nabarmendu dute helburua ez dela soilik ekonomikoa, baizik eta herri-bizitza aktiboa eta komunitarioa indartzea.

Udalak Dendarateanekin, Gipuzkoako merkatarik elkarrekin asoziazioarekin, hasitako lankidetzaren baitan kokatzen da ekimen hau. Udalak eskatuta, Dendarateanek merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen egoeraren diagnostikoa burutu zuen 2025ean zehar eta azterketa horretan atzemandako gabeziei erantzuteko neurriak zehaztea da hurrengo pausua. Mendaroko dendari, ostalari eta zerbitzuen elkarteak sortzea izan da hartutako lehen neurria.



## **Santa Anako trenbide- pasaguneari soinu eta argi bidezko sistema automatikoa ezarriko zaio**

*ETSren aurreikuspenak beteko balira, irailerako lanak amaituta egongo lirateke*

Mendaroko Udalak Euskal Trenbide Sarearekin (ETS) azken bi urteetan egindako kudeaketei esker, Santa Anako trenbide-pasagunearen segurtasuna hobetzeko neurri garrantzitsuak hartuko dira aurtan bertan. ETSren aurreikuspenak beteko balira, irailerako lanak amaituta egongo lirateke.

Gune horretan ikuspegia oso mugatua da bihurgunearen ondorioz, eta Santa Anako ermitaren eta aisialdi gunearen hurbiltasunagatik, batetik, eta inguruko baserrietako joan-etorriengatik, bestetik, oinezko eta ibilgailuentzako leku arriskutsua izan da betidanik. Udan gainera trenen maiztasuna bikoiztu egiten da eta Santa Ana egunean, bereziki, kontu handiz ibili behar izan ohi dute herritarrek, trenen joan-etorriek mendaroarren jaiegun nagusia hondatu ez dezaten.

Udalaren eskaerari erantzunez ETSk puntu horretako arriskuaren balorazio bat egin zuen lehendabizi eta ebaluazio horren ondoren pasagune hori A2 klaseko bidegurutze gisa katalogatu da eta klase horretako trenbide pasabidei ezartzen zaizkien babes neurriak ezarriko zaizkio, beraz, Santa Anakoari ere. Seinale finkoak jarriko dira, alde batetik, eta argi eta soinu bidezko seinaleak, bestetik, oinezko zein gidariei trena hurbiltzen ari dela ohartarazteko.

Enetz Ezenarro alkateak azpimarratu duenez, "pauso garrantzitsua da mendaroarren segurtasuna bermatzeko, eta lanean jarraituko dugu herrian dauzkagun beste puntu arriskutsu batzuetako babesa hobetzeko horretarako beharrezkoak diren erakundeekin lankidetzan".



## **Udalak Mendarora bizitzera datozen herritarrentzako Harrera Protokoloa osatu du**

*Protokoloaren helburua etorri berrien integrazioa erraztea eta aniztasuna balioan jarriz komunitatea kohesionatzea da*

2025ean zehar garatutako prozesuaren ondoren, Mendarok jada badu herrira bizitzera etorritako pertsonei harrera egiteko protokolo bat. Protokoloaren helburua etorri berrien integrazioa erraztea eta aniztasuna balioan jarriz komunitatea kohesionatzea da.

Mendaroko Udalak, Emun aholkularitzaren laguntzarekin, Harrera Protokoloa diseinatu eta martxan jarri zuen 2025ean zehar. Bi fasetan garatu zen proiektua. Lehen fasean (harrera instituzionala) udal langileak formatzeko saioak egin ziren; herrian dauden zerbitzu guztien gida eleanitz bat sortu zen (euskaraz, gazteleraz, frantsesez eta ingelesez); eta lehen ongi etorri saio instituzionala egin zen ekainean. Bigarren fasean (harrera integrala) herriko eragile eta norbanakoen ekarpenak jaso ziren udazkenean zehar eta abenduan bigarren harrera saioa egin zen, kasu honetan eragileek ere parte hartu zutelarik. Prozesuan zehar jasotako informazioarekin osatuta geratu zen protokoloa urte amaieran.

Orain, udalak urtean bi harrera saio egiteko asmoa du, protokolo horretan oinarrituta. Horrela, herrira iritsi berriak diren pertsonei Mendaro ezagutzen, eguneroko bizimodurako baliabideak eskuratzen eta komunitatearekin lehen harremanak sortzen lagundu nahi zaie.

Enez Ezenarro alkatearen hitzetan "pertsonei guztiek, jatorria edozein dela ere, komunitatearen parte sentitzea da gure helburua", diote udal iturriek.

Kultura aniztasuna, hizkuntza, genero berdintasuna eta zerbitzuetarako irisgarritasuna ardatz hartuta, Mendarok elkarlanean oinarritutako komunitate kohesionatua eta solidarioa sustatu nahi du.



## **Altzola eta Mendaro arteko bidegorri zatia diseinatzen ari da Gipuzkoako Foru Aldundia**

*Gipuzkoako Foru Aldundia Altzola eta Mendaro arteko 1,7 kilometroko bidegorri zatia diseinatzen ari da, eskualdeko mugikortasun jasangarria eta oinezko zein txirrindularien segurtasuna hobetzeko helburuarekin*

Aldundiaren arabera, ibilbideak 1,7 kilometro inguruko luzera eta hiru metroko zabalera izango ditu, eta nagusiki N-634 errepidearen eta AP-8 autobidearen artean kokatuko da. Helburua oinezkoentzat zein bizikletaz ibiltzen direnentzat ibilbide eroso eta segurua eskaintzea da, bi herrien arteko lotura hobetuz.

Diputazioak azpimarratu du egitasmo hau Gipuzkoako bidegorri sarea sendotzeko estrategiaren barruan kokatzen dela, herriak modu jasangarrian konektatuz eta eguneroko joan-etorri osasungarriagoak sustatuz. Era berean, Mendaro eta Elgoibarko udalekin elkarlana funtsezkotzat jo du proiektuaren garapenerako.

Mendaroko Udalak balorazio positiboa egin du proiektuaren inguruan, eta herritarren aspaldiko eskaera bati erantzuten diola nabarmendu du. Alkatearen hitzetan, “aspaldiko herritarren eskakizuna da bi herriak modu seguru eta jasangarrian lotuko dituen bidegorri bat izatea, eta gaur egun bizi dugun trantsizio ekologikoaren testuinguruan horrelako azpiegiturek garrantzi berezia dute”.

Datozen hilabeteetan, proiektuaren dokumentazio teknikoa osatzen jarraituko da, trazaduraren behin betiko definizioa eta eraikuntza aukerak zehazteko.



## **Elkarlanean ibilbide osasungarrien sarea diseinatzen**

*Herritarren eta herriko eragileen parte-hartzea bilatuz ari da prozesua garatzen urtea amaitu aurretik oinezko ibilbide sarea martxan egon dadin*

Mendaro herri atsegina da, baina azken urteotan gero eta nabarmenagoa da espazio publikoaren eta mugikortasunaren inguruko hausnarketa. Testuinguru horretan kokatzen da Udalak bultzatutako herriko ibil-bide osasungarrien sarea: herria oinez bizitzeko proiektua.

Mendaroarren jarduera fisikoari lotuta dauzkaten ohitura eta beharren azterketa bat egin zuen udalak 2022an. Azterketa horrek erakutsi zuen, helduen artean, oinez ibiltzea, korrika egitea edo mendira joatea zela ariketa fisikoa egiteko modurik ohikoena.

Bestetik, 2024an osasunaren eta inklusioaren ikuspegitik Mendaroko espazio publikoen parte hartze bidezko berrantolaketa plan bat egin zuen udalak. Besteak beste, bizimodu aktiboa eta osasungarria sustatzera bideratutako oinezko ibilbideak sortzea aipatzen da bertan.

Bi abiapuntu horiek uztartuta udala estrategia berri bat lantzen ari da bizimodu aktiboa eta osasungarria sustatzeko. Horretarako, herrigunean zehar ibiltzeko ibilbide sare bat diseinatzen ari gara, auzo ezberdinetatik abiatuz, Aranerreka eta industriaguneak barne hartuko dituena.

Enetz Ezenarro alkatearen arabera helburua ez da soilik jarduera fisikoa bultzatzea, horrez gain pertsonen arteko topaketa erraztea ere bilatzen da. “Ibiltzea jarduera simple bezain osasungarria da, baina konpainian eginez gero, are aberasgarriagoa dela badakigu. Gainera, jarduera inklusiboa da: zapatilak jantzi eta ia edonork egin baitezake, bakoitzak bere erritmora eta gaitasunera egokituta”.

Herritarren eta herriko eragileen parte-hartzea bilatuz ari da prozesua garatzen urtea amaitu aurretik oinezko ibilbide sarea martxan egon dadin.



# **BOLETÍN MUNICIPAL**

## **de Mendaro**

**Abril de 2026**

## Índice

### **Los presupuestos de 2026 ponen el acento en las inversiones estratégicas.....19-20**

*Marca la dirección futura de Mendaro, apostando por construir un municipio más moderno, sostenible y socialmente cohesionado a través de inversiones estratégicas*

### **Educación innovadora en Mendaro: huerto escolar y filosofía para niños en el Foro de Educación.....21-22**

*A través de estas iniciativas, Mendaro apuesta por una visión más amplia de la educación*

### **Paso decisivo para mejorar la seguridad de la parada de autobús de Azpilgoeta.....23-24**

*Una vez ejecutadas estas obras, la parada de autobús de Azpilgoeta se alejará de la situación de riesgo actual y se acercará al nivel de seguridad que la ciudadanía necesita*

### **Se ha creado la asociación de comerciantes de Mendaro para reforzar el comercio local.....25-26**

*La creación de la asociación tiene como objetivo dar un impulso a un sector estratégico para la vida del municipio*

### **Se instalará un sistema automático de señales acústicas y luminosas en el paso a nivel de Santa Ana.....27-28**

*Si se cumplen las previsiones de ETS, las obras estarán finalizadas para septiembre*

### **El Ayuntamiento ha elaborado un Protocolo de Acogida para las personas que llegan a vivir a Mendaro.....29-30**

*El objetivo del protocolo es facilitar la integración de las personas recién llegadas y cohesionar la comunidad poniendo en valor la diversidad*

### **La Diputación Foral de Gipuzkoa diseña el tramo de bidegorri entre Altzola y Mendaro.....31**

*La Diputación Foral de Gipuzkoa está diseñando un tramo de bidegorri de 1,7 kilómetros entre Altzola y Mendaro, con el objetivo de mejorar la movilidad sostenible en la comarca y la seguridad tanto de peatones como de ciclistas*

### **Diseñando en colaboración una red de itinerarios saludables.....32-33**

*El proceso se está desarrollando buscando la participación de la ciudadanía y de los agentes locales, con el objetivo de que la red de itinerarios peatonales esté en marcha antes de finalizar el año*



## **Los presupuestos de 2026 ponen el acento en las inversiones estratégicas**

*Marca la dirección futura de Mendaro, apostando por construir un municipio más moderno, sostenible y socialmente cohesionado a través de inversiones estratégicas*

El Ayuntamiento de Mendaro ha aprobado el presupuesto de 2026, de alrededor de 4,48 millones de euros, poniendo especial atención en las inversiones estratégicas con el objetivo de mejorar las infraestructuras del municipio, los servicios públicos y avanzar hacia un modelo energético más sostenible.

Uno de los ejes principales del presupuesto es el capítulo de inversiones, que supera los 1,3 millones de euros e incluye varios proyectos significativos que tendrán un impacto directo en la vida cotidiana de la ciudadanía.

### **Reforma del hogar y del bar del jubilado**

Una de las principales inversiones será la renovación integral del hogar y del bar del jubilado, con un presupuesto cercano a los 800.000 euros. A través de este proyecto se pretende mejorar la comodidad, la accesibilidad y la funcionalidad del espacio, reforzando así un importante punto de encuentro social para la gente del municipio.

El objetivo del Ayuntamiento es dar al edificio un uso actualizado, modernizando el servicio y convirtiéndolo en un espacio de referencia para la vida comunitaria.

### **Renovación del alumbrado público: hacia la eficiencia energética**

Otra inversión destacada es la renovación del alumbrado público mediante el paso a tecnología LED. Con una inversión superior a los 500.000 euros, el Ayuntamiento busca reducir el consumo energético, disminuir los costes y mejorar la calidad de la iluminación en el municipio.

Esta medida sitúa a Mendaro en la senda de la transición energética, impulsando un modelo más sostenible con el medio ambiente y reduciendo la huella de carbono.

### **Mejora de infraestructuras y servicios municipales**

El presupuesto también contempla una partida para la mejora general de infraestructuras y servicios del municipio. Dentro de este apartado se prevén trabajos de mantenimiento de espacios municipales, mejoras en la accesibilidad y adecuación de espacios públicos.

El objetivo es crear espacios más seguros, accesibles y funcionales para el uso cotidiano de la ciudadanía.

### **La visión del Ayuntamiento: hacia un modelo de municipio de futuro**

Según el alcalde, Enetz Ezenarro, el presupuesto de 2026 está elaborado “con realismo pero con visión de futuro”, y ha destacado que las inversiones responden a las principales necesidades de Mendaro.

Asimismo, el alcalde ha subrayado que estas líneas estratégicas permitirán mejorar el bienestar de la población, señalando que este tipo de mejoras “son realmente merecidas por la ciudadanía”, ya que repercuten directamente en la calidad de vida diaria del municipio.

“Nuestro objetivo no es solo mantener los servicios cotidianos, sino también modernizar el municipio, reforzar la cohesión social y dar respuesta a la transición energética y social”, ha afirmado.



## **Educación innovadora en Mendaro: huerto escolar y filosofía para niños en el Foro de Educación**

*A través de estas iniciativas, Mendaro apuesta por una visión más amplia de la educación*

Dentro de las iniciativas orientadas a reforzar la comunidad educativa y fomentar aprendizajes innovadores, el Ayuntamiento de Mendaro ha puesto en marcha el Foro de Educación, en colaboración con la escuela del municipio, la asociación de madres y padres y otros agentes locales. En el marco de este foro, se han seleccionado dos ejes principales para poner en marcha durante este curso: el huerto escolar y la filosofía para niños.

El proyecto del huerto escolar combina naturaleza y educación para que los niños aprendan a través de la experiencia directa. Trabajando en el huerto, el alumnado conoce el crecimiento de las plantas, el respeto al medio ambiente y la importancia de una alimentación saludable. Al mismo tiempo, ofrece la oportunidad de trabajar valores como el trabajo en equipo, la responsabilidad y la autonomía, reforzando el aprendizaje experiencial fuera del aula.


Por otro lado, el programa de filosofía para niños fomenta el pensamiento crítico y el diálogo. En estas sesiones, los niños aprenden a formular preguntas, a expresar sus opiniones y a escuchar las de los demás. El objetivo principal no es encontrar respuestas correctas, sino desarrollar la capacidad de pensar y construir razonamientos. De este modo, los niños trabajan su autonomía intelectual y sus habilidades comunicativas.

El Foro de Educación no es una iniciativa aislada, sino un espacio participativo de colaboración entre el Ayuntamiento, la escuela, la asociación de madres y padres y otros agentes del municipio, impulsado por la red de pueblos educadores OinHerri. En él se

trabajan propuestas a favor de un modelo educativo más inclusivo y completo, con el objetivo de reforzar la comunidad educativa local.

A través de estas iniciativas, Mendaro apuesta por una visión más amplia de la educación: una que, más allá del conocimiento académico, tiene en cuenta también el desarrollo emocional, social y crítico de los niños. Todo ello contribuye a construir una base más sólida de cara al futuro del municipio.

Hace dos años que Mendaro se integró en la red de pueblos educadores OinHerri. Desde entonces, se han llevado a cabo diferentes iniciativas en Mendaro con el apoyo de OinHerri: la primera fue Kaleak Denonak, que incorporó la participación de niños y jóvenes en la reorganización de los espacios públicos, y la segunda ha sido la puesta en marcha del Foro de Educación de Mendaro.



## **Paso decisivo para mejorar la seguridad de la parada de autobús de Azpilgoeta**

*Una vez ejecutadas estas obras, la parada de autobús de Azpilgoeta se alejará de la situación de riesgo actual y se acercará al nivel de seguridad que la ciudadanía necesita*

El Ayuntamiento de Mendaro lleva años preocupado por la situación de la parada de autobús del barrio de Azpilgoeta, y ha subrayado en repetidas ocasiones la necesidad de garantizar la seguridad de sus usuarios. En la actualidad, las deficiencias de la parada generan situaciones de riesgo, especialmente para los peatones, ya que el autobús se detiene en la propia carretera y no existe un espacio adecuado para la espera.

En este contexto, se ha confirmado que la Diputación Foral de Gipuzkoa llevará a cabo trabajos de adecuación de la parada, respondiendo a una antigua demanda del Ayuntamiento. El objetivo del proyecto es claro: mejorar la seguridad de los usuarios y garantizar la accesibilidad de la parada.

Entre las actuaciones previstas se incluyen la implantación de medidas para reducir la velocidad del tráfico, la adecuación de los pasos peatonales y la mejora de la propia estructura de la parada, con el fin de que los usuarios puedan esperar en condiciones más seguras.

El alcalde de Mendaro, Enetz Ezenarro, ha subrayado que “una de las principales prioridades del Ayuntamiento es la seguridad de la ciudadanía, y en este caso aún más la de las personas que utilizan el transporte público en su día a día. Llevamos años denunciando esta situación y solicitando una solución, y nos alegra que por fin se vaya a dar este paso decisivo”. Asimismo, el alcalde ha destacado la importancia de la colaboración institucional: “Desde el Ayuntamiento hemos solicitado reiteradamente la

intervención, y gracias a la colaboración con la Diputación hemos logrado sacar adelante este proyecto. Esto demuestra que la cooperación entre administraciones es fundamental para garantizar el bienestar de la ciudadanía”.

Una vez ejecutadas estas obras, la parada de autobús de Azpilgoeta se alejará de la situación de riesgo actual y se acercará al nivel de seguridad que la ciudadanía necesita. Por su parte, el Ayuntamiento de Mendaro continuará trabajando para mejorar las infraestructuras del municipio y garantizar la calidad de vida de sus habitantes.



## **Se ha creado la asociación de comerciantes de Mendaro para reforzar el comercio local**

*La creación de la asociación tiene como objetivo dar un impulso a un sector estratégico para la vida del municipio*

A finales de 2025 se constituyó en Mendaro una nueva asociación de comerciantes, con el objetivo de fomentar la colaboración y dinamización entre el comercio, la hostelería y los pequeños servicios del municipio. La iniciativa ha contado con el apoyo del Ayuntamiento y se ha materializado con la participación de diversos agentes del sector.

La creación de la asociación tiene como objetivo dar un impulso a un sector estratégico para la vida del municipio. El comercio local no es solo un servicio económico; también es una estructura que garantiza las relaciones cotidianas, la cercanía y la cohesión social del municipio.

Los comercios y la hostelería del municipio cumplen una importante función social: ofrecen atención cercana a las personas mayores, dan vida a las calles y sostienen la vida comunitaria diaria. Por ello, el debilitamiento o desaparición de este sector tendría consecuencias directas en la dinámica cotidiana del municipio.

Un Mendaro sin pequeño comercio presentaría riesgos evidentes: reducción de la vitalidad en las calles, debilitamiento de las relaciones entre la ciudadanía, dificultades en el acceso a servicios y, en general, una pérdida progresiva de la identidad local. Además, la externalización del consumo (ir a comprar a otros municipios) debilitaría la economía local y también afectaría a las oportunidades de empleo.

En este contexto, la creación de la asociación de comerciantes supone un paso importante para reforzar la red comercial del municipio y garantizar un futuro más sostenible.

El Ayuntamiento de Mendaro ha valorado positivamente la iniciativa. En palabras del alcalde Enez Ezenarro, “cuidar y fortalecer el pequeño comercio local es fundamental para el futuro de Mendaro. Un municipio sin comercio no tendría la vitalidad social y comunitaria que conocemos hoy en día”.

Asimismo, el alcalde ha subrayado el compromiso del Ayuntamiento: “Desde el Ayuntamiento estamos dispuestos a seguir colaborando para que la red comercial del municipio se mantenga viva y continúe ofreciendo un servicio cercano y de calidad a la ciudadanía”.

La nueva asociación ya ha definido sus primeras líneas de trabajo, entre ellas iniciativas de dinamización local, campañas comerciales conjuntas y reuniones continuas para identificar las necesidades del sector. Las personas participantes han destacado que el objetivo no es únicamente económico, sino también reforzar una vida local activa y comunitaria.

Esta iniciativa se enmarca en la colaboración iniciada por el Ayuntamiento con Dendarlean, la asociación de comerciantes de Gipuzkoa. A petición del Ayuntamiento, Dendarlean realizó durante 2025 un diagnóstico de la situación del comercio, la hostelería y los servicios, y el siguiente paso será definir medidas para responder a las carencias detectadas en dicho análisis. La creación de la asociación de comerciantes, hosteleros y servicios de Mendaro ha sido la primera medida adoptada.



## **Se instalará un sistema automático de señales acústicas y luminosas en el paso a nivel de Santa Ana**

*Si se cumplen las previsiones de ETS, las obras estarán finalizadas para septiembre*

Gracias a las gestiones realizadas por el Ayuntamiento de Mendaro con Euskal Trenbide Sarea (ETS) durante los dos últimos años, este mismo año se adoptarán importantes medidas para mejorar la seguridad del paso a nivel de Santa Ana. Si se cumplen las previsiones de ETS, las obras estarán finalizadas para septiembre.

En este punto, la visibilidad es muy limitada debido a la curva, y por la proximidad de la ermita de Santa Ana y la zona de ocio, por un lado, y por los desplazamientos desde los caseríos cercanos, por otro, ha sido siempre un lugar peligroso tanto para peatones como para vehículos. Además, en verano la frecuencia de los trenes se duplica y, especialmente el día de Santa Ana, la ciudadanía suele tener que extremar las precauciones para que el tránsito de trenes no arruine la principal jornada festiva de los mendararras.

En respuesta a la solicitud del Ayuntamiento, ETS realizó en primer lugar una valoración del riesgo de este punto y, tras dicha evaluación, el paso a nivel ha sido catalogado como cruce de clase A2, por lo que se le aplicarán las medidas de protección correspondientes a este tipo de pasos ferroviarios, también en el caso de Santa Ana. Se instalarán señales fijas, por un lado, y señales luminosas y acústicas, por otro, para advertir tanto a peatones como a conductores de la aproximación de un tren.

El alcalde Enez Ezenarro ha subrayado que “se trata de un paso importante para garantizar la seguridad de los mendararras, y seguiremos trabajando en colaboración

con las instituciones necesarias para mejorar la protección en otros puntos peligrosos del municipio”.



## **El Ayuntamiento ha elaborado un Protocolo de Acogida para las personas que llegan a vivir a Mendaro**

*El objetivo del protocolo es facilitar la integración de las personas recién llegadas y cohesionar la comunidad poniendo en valor la diversidad*

Tras el proceso desarrollado a lo largo de 2025, Mendaro ya cuenta con un protocolo de acogida para las personas que se trasladan a vivir al municipio. El objetivo del protocolo es facilitar la integración de las personas recién llegadas y cohesionar la comunidad poniendo en valor la diversidad.

El Ayuntamiento de Mendaro, con la colaboración de la consultora Emun, diseñó y puso en marcha el Protocolo de Acogida a lo largo de 2025. El proyecto se desarrolló en dos fases. En la primera fase (acogida institucional), se realizaron sesiones de formación para el personal municipal; se creó una guía multilingüe de todos los servicios existentes en el municipio (en euskera, castellano, francés e inglés); y se celebró la primera sesión institucional de bienvenida en junio. En la segunda fase (acogida integral), se recogieron las aportaciones de agentes y personas del municipio durante el otoño y en diciembre se celebró una segunda sesión de acogida, en la que también participaron los agentes locales. Con la información recogida a lo largo del proceso, el protocolo quedó completado a finales de año.

Ahora, el Ayuntamiento tiene previsto realizar dos sesiones de acogida al año, basadas en este protocolo. De este modo, se pretende ayudar a las personas recién llegadas a conocer Mendaro, acceder a recursos para la vida cotidiana y establecer los primeros contactos con la comunidad.

En palabras del alcalde Enetz Ezenarro, “el objetivo es que todas las personas, independientemente de su origen, se sientan parte de la comunidad”, señalan fuentes municipales.

Tomando como ejes la diversidad cultural, la lengua, la igualdad de género y la accesibilidad a los servicios, Mendaro quiere fomentar una comunidad cohesionada y solidaria basada en la colaboración.



## **La Diputación Foral de Gipuzkoa diseña el tramo de bidegorri entre Alzola y Mendaro**

*La Diputación Foral de Gipuzkoa está diseñando un tramo de bidegorri de 1,7 kilómetros entre Alzola y Mendaro, con el objetivo de mejorar la movilidad sostenible en la comarca y la seguridad tanto de peatones como de ciclistas*

Según la Diputación, el recorrido tendrá una longitud aproximada de 1,7 kilómetros y una anchura de tres metros, y se situará principalmente entre la carretera N-634 y la autopista AP-8. El objetivo es ofrecer un itinerario cómodo y seguro tanto para peatones como para quienes se desplazan en bicicleta, mejorando la conexión entre ambos municipios.

La Diputación ha subrayado que este proyecto se enmarca en la estrategia de consolidación de la red de bidegorris de Gipuzkoa, conectando los municipios de manera sostenible y fomentando desplazamientos cotidianos más saludables. Asimismo, ha considerado fundamental la colaboración con los ayuntamientos de Mendaro y Elgoibar para el desarrollo del proyecto.

El Ayuntamiento de Mendaro ha valorado positivamente el proyecto, destacando que responde a una antigua demanda de la ciudadanía. En palabras del alcalde, “es una reivindicación histórica de la ciudadanía contar con un bidegorri que conecte ambos municipios de forma segura y sostenible, y en el contexto actual de transición ecológica este tipo de infraestructuras adquiere una especial relevancia”.

En los próximos meses se continuará completando la documentación técnica del proyecto, con el fin de definir de manera definitiva el trazado y las opciones constructivas.



## **Diseñando en colaboración una red de itinerarios saludables**

*El proceso se está desarrollando buscando la participación de la ciudadanía y de los agentes locales, con el objetivo de que la red de itinerarios peatonales esté en marcha antes de finalizar el año*

Mendaro es un municipio agradable, pero en los últimos años es cada vez más evidente la reflexión en torno al espacio público y la movilidad. En este contexto se sitúa la red de itinerarios saludables impulsada por el Ayuntamiento: un proyecto para vivir el municipio a pie.

El Ayuntamiento realizó en 2022 un análisis de los hábitos y necesidades de la ciudadanía en relación con la actividad física. Dicho estudio mostró que, entre la población adulta, caminar, correr o ir al monte eran las formas más habituales de realizar ejercicio físico.

Por otro lado, en 2024 el Ayuntamiento elaboró un plan participativo de reorganización de los espacios públicos de Mendaro desde la perspectiva de la salud y la inclusión. Entre otras cuestiones, se plantea la creación de recorridos peatonales orientados a fomentar un estilo de vida activo y saludable.

Combinando ambos puntos de partida, el Ayuntamiento está trabajando en una nueva estrategia para promover un estilo de vida activo y saludable. Para ello, se está diseñando una red de itinerarios para recorrer el municipio a pie, partiendo de diferentes barrios e incluyendo Aranerreka y las zonas industriales.

Según el alcalde Enez Ezenarro, el objetivo no es solo fomentar la actividad física, sino también facilitar el encuentro entre las personas. “Caminar es una actividad tan simple como saludable, pero sabemos que si se realiza en compañía resulta aún más

enriquecedora. Además, es una actividad inclusiva: basta con ponerse unas zapatillas y prácticamente cualquiera puede realizarla, adaptándola a su propio ritmo y capacidad”.

El proceso se está desarrollando buscando la participación de la ciudadanía y de los agentes locales, con el objetivo de que la red de itinerarios peatonales esté en marcha antes de finalizar el año.